

ChemBio'26: berrikuntza sortzea kimika eta biologia batuz

CIC biomaGUNEk, Deustuko Unibertsitateak eta Polymatek Kimikako Espainiako Errege Elkartearen Biologia Kimikoko Taldearen Biurteko Topaketa antolatu dute Donostian

Apirilaren 27, 28 eta 29an, biologia sintetiko, estruktural eta konputazionalen, nanobioteknologian, biokatalisian, kimika medikoan eta biomaterialetan egindako azken aurrerapenak aztertuko dira

Donostia, 2026ko apirilaren 27a. Gaurtik asteazkenera, hilaren 29ra, Kimikako Espainiako Errege Elkartearen Biologia Kimikoko Taldearen VIII. Biurteko Topaketa egingo da Donostiako Aquariumean. CIC biomaGUNEk, Polymatek eta Deustuko Unibertsitateak antolatu duten [ChemBio'26](#) biltzarrak biologia kimikoaren arloan nazioartean izen handia duten 130 ikertzaile gazte eta espezialista inguru bilduko ditu.

Hiru egun horietan, bertaratuek kimikaren eta biologiaren arteko mugako fenomeno harrigarrienetako batzuk ezagutu ahal izango dituzte; izan ere, ekitaldiaren antolatzaileak, Natalia Baranova (CIC biomaGUNE), Ana Beloqui (Polymat) eta Ganeko Bernardo (Deustuko Unibertsitatea), sinetsita daude "kimikaren eta biologiaren arteko konbergentziatik sortzen dela berrikuntza".

ChemBio'2026 biltzarrean, biologia sintetikoko, biologia estrukturaleko eta konputazionalen, nanobioteknologiako, kimika medikoko eta biomaterialetako azken aurrerapen zientifikoak aztertuko dira, Euskal Herriko, Espainiako eta nazioarteko lehen mailako zenbait zentrotako adituen hitzaldi-programa zabal bati esker. Donostiako Aquariuma ingurune paregabea izango da kimikaren eta biologiaren arteko interfazean aro berri baten garapena gidatzen ari direnengandik ikasteko, truke zientifikoari eta nazioarteko lankidetzari irekita egongo den giro batean, anfitrioi hauen bermearekin:

Natalia Baranova Ramón y Cajal ikertzailea eta Ikerbasque Fellow da CIC biomaGUNE. Zuzentzen duen taldea mihiztadura molekularren alderantzizko ingeniartzaren bidezko bakterio-infekzioen ikerketan zentratzen da, haien funtzionamendua arautzen duten printzipioak aurkitzeko eta antibiotikoekiko erresistentziari aurre egiteko estrategia berriak proposatzeko.

Ana Beloqui Polymateko Ikerbasque Associate Professor da. Zuzentzen duen taldeak polimero funtzionalen eta entzimen arteko konbinazioa aztertzen du, aplikazio aurreratueterako gailu jasangarriak, biobateragarriak eta eraginkorrak garatzeko, bereziki sentso bidezko hautematearen eta biomedikuntzaren arloetan.

Ganeko Bernardo Deustuko Unibertsitateko ikertzailea da. Ikerketa-lerro berri bat zuzentzen du ELA gaixotasunari lotutako proteinen karakterizazio biofisikoaren eta

estrukturalaren arloan, agregazio patologikoaren aurkako txaperoi teragnostikoak garatzeko helburuarekin.

Hitzaldi-programa zabalean erakargarritasun eta interes handiko hainbat gai nabarmendu daitezke. **Marc Güell** doktoreak (ICREA) eboluzio artifiziala eta antzinako berreraikuntza ebolutiboak erabiltzen ditu giza genomaren eta metagenomaren aldaketa eraginkor eta seguruagoa ahalbidetzen duten sistema berriak sortzeko, baita garrantzi bioteknologikoko funtzio biologiko berriak garatzeko ere. **Andreas Walther** doktoreak, berriz, izaki bizidunak imitatzen dituzten eta bizitzaren oinarritzko printzipioetan oinarritutako prozesu dinamikoak eta adimen kimikoko printzipioak integratzen dituzten materialak eta sistemak garatzen ditu.

Ekitaldiaren antolatzaileek konpromiso handia dute berdintasuna sustatzearekin, eta lankidetzaz-espíritu sendoa bultzatu nahi dute biltzar honetan. "Arreta berezia jarri da ibilbidearen hasieran dauden emakumezko zein gizonezko ikertzaileen ordezkaritza zabala bermatzeko, eta aukera eman zaie beren lana ezagutarazteko eta aktiboki parte hartzeko", adierazi dute. Azkenik, espero dute aurtengo ChemBio topaketa inspirazio-iturri izatea etorkizuneko ekitaldiek espíritú inklusibo eta kolaboratibo bera izan dezaten.